

2011KO AZAROAREN 15EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO
APARTEKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamabosta.

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya Gonzalez
Aitor Larburu Izaguirre
Iñaki Saldaña Herrero
Aitor Aldasoro Iturbe
M^a Luisa Valles Fernandez
Leire Artola Ugalde
Iñigo Arrese Artabe
Encarna Arrieta Telleria
Eva Diaz del Rio
Josi Insausti Mujika
Julio Herreros Serna
Unai Baztarrika Otegi

ETORRI GABEAK: Asier Sarriegui Zumarraga
Cecilia Herrador Garin
Ana M^a Crespo Blanco

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- ORDEZKARIAK IZENDATZEA. GOIEKIn ordezkariak izendatzea.

Alkate jaunak (BILDU): “Aparteko Pleno honetan tratatu behar zen gaiaren inguruan desadostasuna sortu da, alderdi politiko guztiak ordezkatuta ez daudelako. Beraz Pleno hau bertan behera gelditzen da eta izendapenei buruz kontsentsua berriro lortzen denean, Plenoan tratatu eta erabakia hartuko da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik uste dut esan beharrekoa dela aurreko legealdietan ere, nahiz eta legea ez erabat errespetatu, ordezkaritza zuten alderdi politiko guztiak ahotsa eta botoa izatea zela, zegoen espiritua. Horrek esan nahi du egun ordezkaritza gehien duten alderdiek, hau da, BILDUK eta EAJk, kontzesio bat egin behar dutela eta beraien alde egin beharreko izendapena laga, beste alderdi politiko batek ahotsa eta botoa izan dezan. Nahiz eta aurretik hitz eginda egon, proposamenean hori jasotzen ez denez, eta gure alderditik behintzat lehen aipatutako espiritua mantentzearen alde egon, hori izango litzateke Plenoa bertan behera uztearen arrazoia.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Ez hori bakarrik, herri txikietan ere, independenteen artean adostasun batera iristea komenigarria litzateke proposamena egiteko.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Uste dut, sindikatuak ere sartu egin nahi dutela, ordezkaritza zabalagoa izan dadin.”

Aipatutako arrazoiak direla medio, Plenoa bertan behera gelditu da.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hamahiru minutuetan amaitu da eta, nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.